


Erreseina: Nemesio Elefantea

Título: Erreseina: Nemesio Elefantea. **Target:** Educación Infantil. **Asignatura:** Lenguajes:comunicación y representación. **Autor:** Nerea Zabaleta Arangoa, Maestra. Especialidad en Educación Infantil y Primaria., Profesora de Educación Infantil.

“Nemesioren elefantea” deituriko liburuaren egilea Pako Aristi urrestildarra dugu. Istorioaren hasieran ama eta semeen arteko harremana islatzen da eta gero, adiskidetasunak duen garrantzia azpimarratzen da.

Ipuinean agertzen diren protagonista nagusienak Nemesio deituriko mutikoa eta Eustakio elefantea ditugu. Ipuina Belandia izeneko herri batean dago kokatua, Pako Aristik bere beste hainbat liburutan erabili ohi duen herrian hain zuzen ere. Nemesio, bere amarekin bizi da eta beti eztabaidan dabilta, izan ere, Nemesiok egiten duena egin, zakar portatzen da berarekin.


Bat-batean irratan, Belandiako zirku Italiarretik elefante batek ihes egin duela esaten dute. Hori dela eta, inguruko ertzain, udaltzainak...beronen bila dabilta aztoraturik. Nemesiok berria irratan entzun eta ohi bezala amarekin liskarrean jardun ondoren eskolara abiatzen da. Etxetik irtetean, hara non agertzen zaion ihes egindako elefantea. Nemesio eta elefantea lagun egiten dira eta poliziak atzetik dabiltzanez ezkututzen laguntzen dio.



Hainbat lekutan ezkututzen saiatzen da elefantea baina ez da erraza gordelekua aurkitzea, leku asko behar baitu elefanteak. Denbora pasa ahala Nemesio elefanteak idazten dakiela konturatzen da eta beraz, arbel txiki batean idatziz komunikatzen dira. Elefanteak Eustakio duela izena eta zaharkitua dagoenez berau hiltzea nahi dutela esaten dio. Alde batetik, Eustakiok ez du nahi zirkura itzuli baina bestetik bere kumetxea bertan du. Arazoari irtenbidea aurkitzen saiatzen dira eta azkenean hainbat lekutan gordeta egon ondoren, Esnaola sagardotegiko kupela baten barruan ezkututzen da. Esnaola, sagardotegiko nagusiak jende ugari gonbidatzen du sagardotegira: ertzainak, udaltzainak, domatzailea...Elefantea barrika barruan dago ezkutatua eta Nemesio iskina batean gordetzen da. Guztiak sagardotegian daudenean, gordelekuatik atera eta guztiakin negoziaketa bat egiten du. Azkenean Eustakiok idazten badakiela eta zirkuko animaliei honetan erakusteko balio duela adierazten du Nemesiok. Hori dela eta, bizitza errespetatuko diotela eta bere kumearengandik ez dutela urrunduko zin egiten dio hezitzaileak.

Beraz, ipuinak sarrera, korapiloa eta amaiera zorionsua ditu Nemesio eta Eustakioren artean. Nemesio eta amaren arteko harremana berriz, airean geratzen da, ez baitakigu ondoren zer gertatzen den.

Ilustrazioei dagokionez, Jokin Larreak egin ditu eta gure ustez, oso ondo islatu ditu istorioan egiten diren deskribapenak. Irudiak adierazgarriak eta koloretsuak dira eta testuarekin lotura zuzena dute. Adibidez Eustakio mozkortzen denean, bere ingurua jira-biraka (ikusten duen bezala) agertzen da irudian eta noski, pertsonaien aurpegiak ere euren barne egoera adierazten dute; hala nola tristura, poza... Mugimendua edota bizkortasuna adierazteko ere, pertsonaien edota elementuen inguruan marratxo batzuek baliatzen da.



Marrazkiez gain, testuaren formatua ere aldatu egiten da. Adibidez, Nemesiok haserre esandako gauzak hitz larriz agertzen dira. Eustakio elefantearenak dioena berriz, letra etzanean (kurtsiban) eta kakotxen artean daude adierazirik.

Liburuak lantzen duen gaiari dagokionez oso aproposa dela esango nuke. Laguntasuna zein beharrezkoa den adierazten digu Nemesio eta Eustakio elefantearen istorioaren bidez. Elefante hau, lagun handia da Nemesiorentzat, indartsua, baketsua, lagun batek izan behar duen bezalakoa eta hasierako unetik Eustakio laguntzeko prest agertzen da. Horregatik, Idazleak elefantea baino lagun handiagoa edukitzerik ez dagoenez, berau aukeratu du Nemesioren lagun, oso handia baita eta lagunak zenbat eta handiagoak izan, hobe, izan ere, penak ere txikiagoak izango dira lagun handiak dituzun bitartean.

Istoriok oso balio garrantzitsuak transmititzen ditu. Esaterako, Nemesio bezalako lagun bat daukagunean ondoan altxor bat daukagu eta arazo baten pisua gutxitu egiten da beste pertsona baten laguntzarekin eta irtenbide ugari egon daitezkeela ikustarazten laguntzen digu.

Liburua atalka banatuta dagoenez, irakurketa errazten du eta gainera, testua ulerterraza da. Elkarrizketa asko agertzen dira eta honek liburuari bizitasuna ematen dio.

Azkenik esan, oso aproposa eta gomendagarria dela haur naiz gaztetxoentzako. Modu dibertigarri batean kontatutako istorioa dugu eta Nemesio eta Eustakiok hainbat abentura bizitzen dituztenez eta bitxikeri bezala, elefanteak idazten dakiela agertzen denez, oso gustukoa izango dutelakoan gaude.

